



GURE PLATERA -GURE AUKERA

*eskola-jangela osasungarriago,
hurbilago, bidezkoago eta
hezitzaileagoaren alde.*

“Hemengoak-De aquí” proiektua 2016an sortu zen Iruñeko udal haur-eskoletako elikadura-eredua aldatzeko asmoz, kalitatezko produktu freskoak, sasoiakoak, ekologikoak eta hurbilekoak txertatuz, zuzenean ekoizleei erositako erosketa publikoko prozesu baten bidez.

Baldintza-agiriaren jarraipena zalantzan dagoen une honetan, proiektu honen estrategikotasuna eta eskalagarritasuna azpimarratu nahi dugu:

1. **EUROPAKO POLITIKEKIN BAT DATORREN PROIEKTUA.** Europak Hemengoak/De Aquí proiektua bezalako ekimenak bultzatzen eta laguntzen ditu, Europako estrategien eta itunen bidez. Hemengoak proiektuak bat egiten du GJHeekin, Europako Itun Berdearekin (Farm to Fork eta Biodibertsitate Estrategia) eta Milango Itunarekin, besteak beste. Gainera, Europak, Europako gainerako herrialdeentzako jardunbide egoki gisa Hemengoak/De aquí¹ proiektua aipatzen du.
2. **HAURREN ESKUBIDEAK.** Proiektu honetan, haurrek elikadura osasuntsu eta osasungarria, askotarikoa eta egokia izateko dituzten eskubideak ulertu eta errespetatzen dira. Kalitate handiko elikagaiak eskaintzen dira, ingurumenarekin eta landa-ekonomiarekin jasagarriak direnak.
3. **MENU OSASUNGARRIAK.** Aurreko proiektuen aldean kalitatea hobetu du.
4. **KALITATEZKO PRODUKTU FRESKOAK, SASOIKOAK, EKOLOGIKOAK ETA HURBILEKOAK (TOXIKORIK ETA KUTSATZAILERIK GABEAK, INGURUMENAREKIKO JASANGARRIAK).** Elikagai horien ekoizpenak ingurumena errespetatzen du (kutsatzailerik eta toxikorik gabe, eta, gainera, sortutako hondakinak gutxitzen ditu), eta horregatik balio erantsia dute.
5. **ZUZENEAN EKOIZLE TXIKIENGANDIK. ELIKADURA SUBIRANOTASUNA.** Gure lurraldea bizirik mantentzen duten ekoizle txikiei eskaintza egiteko aukera ematen dien lote-antolaketa dauka. Merkaturatzeko kanal laburrak erabiltzen dira, bitartekaririk gabe. Ingurunea errespetatzen duten ekoizpen-sistemak sustatzen ditu.
6. **PROIEKTUAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO BALORAZIO ONA.** Elikadura iraunkorraren eremuan, esperientzia erreferentea da estatu osoan, hainbat aipamen eta sari jaso dituelarik.

Aipatutako arrazoi hauengatik, *Hemengoak/De Aquí* proiektua egun dagoen bezala mantentzea eta baldintza-agiriaren jarraipena bermatzea eskatzen dugu.

¹ <https://www.interregeurope.eu/good-practices/healthy-and-sustainable-menus-in-municipal-schools-of-pamplona>



GURE
PLATERA
**-GURE
AUKERA**

*eskola-jangela osasungarriago,
hurbilago, bidezkoago eta
hezitzaileagoaren alde.*